

# HEZKUNTZAN ERABILTZEKO HIZKUNTZA- JARRAIBIDEAK



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jauriaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDALIBURUA

15



EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
GASTEIZ 2008

**H**EZKUNTZAN  
ERABILTZEKO HIZKUNTZA-  
JARRAIBIDEAK

<b>IZENBURUA:</b>	<i>Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak</i>
<b>EDITOREA ETA EGILEA:</b>	EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
<b>AUTOREA:</b>	Eulàlia Lledó Cunill
<b>MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:</b>	ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua
<b>DATA:</b>	2008ko Martxo
<b>ALE-KOPURUA</b>	4.500
<b>DESKRIBATZAILEAK:</b>	Hezkidetz, hizkuntza sexista, androzentrismoa, ikastetxeak, material didaktikoak, gidak
<b>DISEINU GRAFIKOA:</b>	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia, Ana Rincón
<b>ILUSTRATZAILEA:</b>	Ibon Garagarza
<b>INPRIMATEGIA:</b>	ZURE. Estudios gráficos
<b>ISBN:</b>	84-89630-12-7 978 84-89630-12-3
<b>LEGE GORDAILUA:</b>	BI-1003-08

**Salneurria: 5 euro**

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	7
1. SARRERA .....	11
2. AZTERTUTAKO DOKUMENTUAK .....	17
2.1. A atala .....	19
2.1.1. Ondorioak .....	21
2.2. B atala .....	22
2.2.1. Ondorioak .....	26
2.3. C atala .....	27
2.3.1. Ondorioak .....	30
2.4. D atala .....	31
2.4.1. Ondorioak .....	34
2.5. E atala .....	35
2.5.1. Ondorioak .....	37
2.6. F atala .....	38
2.6.1. Ondorioak .....	45
2.7. G atala .....	46
2.7.1. Ondorioak .....	54
3. ONDORIO OROKORRAK .....	55
3.1. Emakumeen presentzia aztertutako dokumentuetan .....	57
3.2. Femeninoaren eta maskulinoaren hurrenkera .....	57
3.3. Forma generikoen erabilera .....	57
3.4. Forma bikoitzak .....	58
3.5. Barrak eta marratxoak .....	58
3.6. Singularrak eta pluralak .....	58
3.7. Artikulu adierazgarriak .....	59
3.8. Arroba gutxi .....	59
3.9. Aldaketa txikiak .....	59
4. AZKEN GOGOETA BATZUK .....	61
4.1. Testuinguruari buruz .....	63
4.2. A bilduari buruz .....	64
4.3. Barrei buruz .....	64
4.4. Diskriminazio era batzuei buruz .....	65

4.4.1. Emakumeak gizonezkoen eranskin soil gisa aurkeztea .....	66
4.4.2. Emakumeak ezaugarri fisikoen arabera aurkeztea .....	66
4.4.3. Adin txikitasuna .....	67
4.4.4. Izenak eta abizenak .....	68
4.5. Ahozko hizkuntzari buruz .....	68
4.6. Estetika, gustua eta generoa ikusgai jartzea .....	69



**A**URKEZPENA







Aspalditik, emakume askok, gizon batzuek eta hainbat erakundek emakumeek hizkuntzan era aske eta oso batean existitu daitezten lan egiten dugu, izena izan dezaten euren jarduera guztietan eta existitzeko eretan; horixe baita emakumeon egoera eta bizitza edozein esparrutan hobetzeko eretako bat —eta ez nolana hiko— .

Hizkuntzaren erabilera hobetzeko ahalegin hau ez da berria; hainbat argitalpenek egiaztatzen du hori, eta horietan arrazoiak aztertu eta proposamenak egin dira, hizkuntzaren erabileran sexismoa eta androzentris-moa saihestearren. Hemendik urrun ez joatearren, Erakunde honek argitaratutakoak eta gaia era orokor batean jorratzen dutenak izendatuko ditut: *Euskara sexista al da?*; *El lenguaje instrumento de progreso* (1), 1992an argitaratutakoak; *Hizkuntza, hitzak*

*baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak* (2), 1998an argitaratutakoa eta *Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboan* (3), 2004an argitaratutakoa.

Batetik, jendarteko sektore anitzetako profesionalak gero eta sarriago egiten dituzten eskakizunei erantzuteko (hain zuzen ere hizkuntzaren erabilera ez androzentrikoak eta ez sexistak ahalik eta ondoen ezartzeko aholku eta baliabideak eskuratu nahian), bestetik, beste urrats bat emateko, eta, azkenik, proposamen orokorren unea gaingintzeko gida batzuk egiteari ekin zaio. Horien helburua da esparru eta eremu desberdinetan erabiltzen den hizkuntzan emakumezkoek eta gizonezkoek duten presentzia aztertzea, eta ereduak eta alternatibak eskaintzea hizkuntzaren erabilera bizi dugun eta gizon-emakumeok ia eremu guztiak partekatzen ditugun jendarte errealitateari egokitzeko eta horrela gizarte igualitarioa lortzeko.


---

(1) *El lenguaje instrumento de progreso*. (1992) Emakunde [Kultura Seriea, 1].

(2) *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. (1998) Vitoria-Gasteiz: Emakunde. <[http://www.emakunde.es/images/upload/lenguaje\\_c.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/lenguaje_c.pdf)>.

(3) Bengoechea Bartolomé, Mercedes; Lledó Cunill, Eulàlia; López Diez, Pilar; Martín Rojo, Luisa y Gómez Esteban, Concepción. *Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboan*. Emakunde: Vitoria-Gasteiz, 2004. <[www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje\\_1.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_1.pdf)> <[www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje\\_2.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_2.pdf)> <[www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje\\_3.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_3.pdf)> <[www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje\\_4.pdf](http://www.emakunde.es/images/upload/Lenguaje_4.pdf)>.

Hezkuntzan erabiltzen den hizkuntzari buruzko gida honekin hasiko dugu serie berri hau. Izan ere, zentzu horretan aurrerapausoak eman dira gida egiteko erabili diren materialetan ikus daitekeen bezala. Hemendik, batetik, zailtasunak gaindituz aurrerapauso hori posible egin dutenak zoriondu eta eskertu nahi ditut. Izan ere, ez dituzte soilik zailtasun teknikoak gainditu behar izan, baita hizkuntzan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna era ausart batean lortzeko egindako lanaren aurrean izan dituzten oztopo eta kritika ugariak ere. Horrez gain, zailtasun daudenak edo eragozpenak jartzen dituztenak lan honekin bat egitera animatu nahi ditugu, azken finean jendarte demokratikoago eta igualitarioago baten alde lan egiten ari baikara.

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping, fluid strokes that form a complex, abstract shape. The signature is positioned in the center of the page.

Izaskun Moyua Pinillos  
EMAKUNDE / Emakumearen  
Euskal Erakundeko zuzendaria



1. **S**ARRERA



Aurkezpenean esan da erakunde batzuek aldaketa orokor eta sinbolikoen aldeko konpromisoa hartu dutela, emakumeak ere hizkuntzan ikusgai jartzeko eta aintzat hartzeko. Horri dago-kionez, gogoratu behar da 2005. urtean Eusko Jaurlaritzak urrats garrantzitsua eman zuela emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartu zue-nean. Lege horrek, «zioen adierazpena» atalean, hizkuntzarekiko interesa erakusten du, esate baterako honako hau esaten duenean:

Titulu horretan jasotzen diren printzipio orokorren ondorio gisa, lege honetan bultzatzen den berdintasuna berdintasun zabala da; izan ere, berdintasun horrek, eskubideak, agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiapuntu diren baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatu eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzak ere ukitzen ditu. Halaber, berdintasun horrek emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen du, eta horien berezitasunak integratzen ditu, gaur egun gizonen eredia ezarri eta orokortzeko za-baldu den joera zuzentze aldera. Horrenbestez, ondokoa da helburua: emakumeak eta gi-zonak, ezberdinak izaki ere, berdinak izatea. Horixe da, hain justu ere, legearen izenburuan «emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna» barik «emakumeen eta gizonen berdinta-suna» jarri izanaren zioa. Horrela, itzuri egiten zaio emakumeen eta gizonen egoeren arteko konparazio hutsa egiteari, zeren egoerak besterik gabe erkatzeak sarri askotan hierarkia bat islatzen baitu berez; izan ere, hierarkia horren arabera, gizonen egoera da xedetzat har-tzen dena, eta emakumeek horretara moldatu behar dute, beren balio, gurari eta jomugei uko eginez (4).

Dokumentuak kezka esplizitua agertzen du —arreta jartzen du— gai linguistikoaren ingu-ruan, esate baterako preposizio bat aukeratzekoan. Horrek agerian uzten du kontzeptu arazo-en, mamiaren, eta, horiek adierazteko eraren artean korrelazio bat dagoela.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legeak, gainera, hezkuntzaren gaian sakontzen du. Horrela, 1. Atalaren 28. artikuluan, “Unibertitateaz kanpoko irakaskuntza”, III. kapituluan, honako hau dio xedapen orokor batek:

Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orien-tazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen beneta-ko berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketa eta abarrean (5).

---

(4) *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia [Colección Textos legales, 86], 2005, 24.

(5) Aipatutako lana, 92

Eta zehatzago —oraingoan material didaktikoei buruzko 30. artikuluaen bigarren puntuan— esplizituki eta sakon aztertzen du hizkuntzaren erabilera ikastetxeetan.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testu-liburuek eta irakaskuntzako beste material guztiek, inola ere, aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazi diren hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu behar dute (6).

Gida hau (eta hurrengoak), beraz, ez da soilik jendartearen eskakizun bat edo euskaldun askoren eskaera, baizik eta baita legeriaren beraren exijentzia ere.

\*\*\*\*\*

Bildumako liburu bakoitzak sektore sozial edo profesional batek erabili ohi duen hizkuntza aztertzen du. Serie honen helburu nagusia irtenbideak proposatzea da, dokumentuen analitiki abiatuta, sektore edo esparru bakoitzean erabiltzen den hizkuntzan emakumeak ikusgai jartzeko edo aintzat hartzeko dauden arazo eta gabeziei antzemateko.

Serieko lehenengo ale hau egiteko zein hurrengoetarako, benetako dokumentuak erabili dira, eguneratuak eta esparru bakoitzean indarrean daudenak, kasu honetan, hezkuntzan. Lehendik egon diren dokumentuak aztertzea erabaki da, bakoitzetik abiatuta, aldaketak proposatzeko, emakumeak ikusezin bihurtzeak edo bazterkeria arazoak, baldin badaude, zuzentzeko. Orokorragoak eta espezifikagoak daude, baina denak proposatzen dira eredu esportagarri bezala, antzeko dokumentuak egin ahal izateko. Horregatik, proposatutako irtenbideak ahalik eta eremu gehienetan baliagarriak izan daitezen ahalegindu gara.

Dokumentu batzuetan dauden zati luzeek ez dute inolako arazorik ekarri; batzuk osorik utzi dira, ez zaie zatirik kendu (esate baterako, aztertu diren lehenengo bi dokumentuak). Horrela egin da, ikusteko batzuetan ez dela ezer ukitu behar, hau da, erakusteko dokumentu batzuek, edo dokumentu zati batzuek, emakumezkoak ikusgai jartzen dituztela eta ez dituztela baztertzen, eta, beraz, ez direla aldatu edo moldatu behar. Horrela egin da, gauza hain beldurgarria ere ez dela ikusteko eta gida honek jorratu nahi duen gaia desdramatizatzeke. Edozein modutan ere, dokumentu batzuen zati batzuk ez dira jaso, irakurketa eta lana gehiegi ez luzatzearren, ez dietelako ezer eskaintzen lan honen helburuei. Horrela egin denean, puntu etenariak adierazi dira parentesi artean: [...].

\*\*\*\*\*

---

(6) Aipatutako lana, 96.

Liburu guztiak berdin antzean antolatu dira. Hezkuntzan erabiltzen den hizkuntzari buruzko lehenengo liburu hau honela antolatu da: Aurkezpenaren ostean, Sarrera egin da; logikoki, serie guztian antzekoa izango da eta liburu edo gida zehatz bakoitzari dagokiona besterik ez da aldatu. Gero, dokumentu batzuek jasotzen dituzten atal batzuk daude —esan da ahalik eta dibertsifikatuen egin nahi izan direla—, hezkuntza-maila eta esparru desberdinetan erabiltzen direnak. Honela jorratu dira materialak: dokumentua edo dokumentu zatiak aurkezten dira, eta, aztertu ahala, irtenbideak ematen dira emakumeak ikusezin bihurtzeak edo mendetasunak sortutako arazoak konpontzeko. Atal bakoitza ondorio espezifiko arin batzuekin amaitzen da. Atal horiek osatzen dute liburuaren enborra.

Gero, ondorio orokor zabalago batzuk daude, atal guztietan ikusi eta agertu dena gaitzat hartuta.

Liburua gogoeta orokor batzuekin amaitzen da, eta, horiek, gure ustez, baliagarriak izango dira testuak ulertzerakoan eta zuzentzerakoan, emakumeak —emakumezkoen edozein kolektibo edo indibidualitate— ikusezin ez bihurtzeko eta ez gutxiesteko.







## 2. **A**ZTERTUTAKO DOKUMENTUAK



## 2.1. A ATALA

Aztertutako lehenengo dokumentua institutu bateko publizitate-liburuxka da.

Liburuxkan, ikastetxearen publizitatea hiru zatitan egituratu da. **Lehenengo blokean** institutuaren ezaugarri nagusiak azaltzen dira, eta era honetara egiten du. Kurtsiban markatu da, laukian sartutako testuetan, positiboa dena eta era apropos batean ez dagoena, eta, taularen ostean, lehenengo positiboa dena aipatzen da eta gero alda daitekeena. Lehenengo dokumentuetan kasu bakoitza nahiko zehatz aztertuko da.

Nuestra identidad

- Anualmente recibimos una centena de *nuevos alumn@s* de la comarca.
- Enseñanza integralmente en euskara.
- *Equipo docente* estable de gran experiencia y en continua formación.
- Trabajo en equipo con *padres/madres*.
- Enseñanza gratuita.

*Equipo docente.* Kasu honetan hitz kolektibo bat erabili da eta hor barruan sartu dira irakasle guztiak, emakumezkoak zein gizonezkoak. Irtenbide praktiko, erraz eta eraginkorra da.

*padres/madres.* Bi sexuak aipatu dira. Eztabaida izango litzateke, beharbada, eleganteargoa, irakurterrazagoa eta esateko errazagoa izango litzatekeen beste era honetara esatea: *padres* y *madres*. Beste arazo bat hitzen hurrenkera da. Aurreratu dezakegunez, dokumentu guztian hurrenkera bera azaltzen da beti: lehenengo gizonezkoak eta gero emakumezkoak. Argi dagoenez, hurrenkera hori alderantziz jar daiteke —izan ere, nahitaez, hierarkizatu egiten du bataren edo bestearen presentzia—.

*nuevos alumn@s.* Formula hori aukeratu dute, ziurrenik, neska ikasleak ikusezin bihurtzen dituen maskulinoa, *nuevos alumnos*, alegia, saihestearren. Honek dakarren arazoa da *nuevos* hitza maskulinoan agertzen dela, eta horrek *alumn@s* hitza genero gramatikal horrekin markatzen du, "a bilduaz" idatzi arren. Irtenbide bat izenondoari a bildua jartzea izango litzateke: *nuev@s alumn@s*. Beste kontu bat izango litzateke egokia ote den a bildua erabiltzea (azken gogoetan hitz egingo da horri buruz). Era generiko bat oso aproposa izango litzateke kasu horri irtenbide bat emateko: *nuevo alumnado*.

**Bigarren blokea** kalitatezko hezkuntza integralari buruzkoa da.

- Formación integral y personalizada *del alumn@*.
- Proyecto de Normalización lingüística para reforzar el euskara.
- Actividades complementarias dirigidas a aproximar *al alumn@* al entorno.
- Seguimiento personal y académico *del alumnado*.
- Relación directa y continua con *padres / madres*.
- Convivencia basada en el respeto y el diálogo.
- Formación de garantía cara a estudios posteriores.
- Tratamiento adecuado a la diversidad *del alumnado*:
  - Amplia oferta de optatividad y opcionalidad.
  - Aula de educación especial.
  - Aulas de prediversificación y diversificación curricular.
  - Aula de aprendizaje de tareas.
- Coordinación permanente con los centros públicos de Educación Primaria de la comarca así como con el Instituto y la Escuela Profesional.

*del alumnado*. Birritan erabili den formula hori generikoa da; beraz, irtenbide ona da.

*padres/madres*. Lehen ere ikusi da, eta aurreko blokean adierazi dira horren aurrean egon daitezkeen aldaera posibleak.

*del alumn@ / al alumn@*. Berrito ere a bildua erabili da hitz berean maskulinoa saihestearren. Aurreko blokean bezala, artikulua maskulinoan uztean, substantiboa ere hala da. Aukera bat artikulua ere bietara jartzea izango litzateke: *de la o del alumn@ / al o la alumn@*. Lehenengo kasuan, ez balitz ezer jarriko, ondo baino hobeto ulertuko litzateke zertaz ari den: *Formación integral y personalizada*. Bigarren kasuan lehen ikusi dugun generikoak (*alumnado*) edo formula bikoitz batek konponbidea emango lioke kasuari.

Baliabide eta zerbitzuei buruzko **hirugarren eta azken blokean** hurrengo formulak errepikatzen direla ikusi da: *del alumnado* eta *padres / madres*.

- Transporte gratuito para *nuestr@s alumn@s* de la comarca.
- Servicio de comedor, elaboración de la comida en el propio centro.
- Los más avanzados recursos didácticos: laboratorio, aulas de tecnología, plástica, medios audiovisuales, música, informática, red interna que gestiona todos los recursos informáticos del centro...

#### Actividades extraescolares

- Amplio programa de deportes en los pueblos de procedencia *del alumnado*.
- Cursillo de cerámica.
- Cursillos de Informática (también para *padres / madres*).
- Charlas informativas dirigidas a *padres / madres*.

*nuestr@s alumn@s*. Kasu berri bakarra hau da. Ikus daitekeenez, lehenengo blokean ez bezala, oraingoan izenondoak zein izenak a bildua daramate. Beraz, kasu honetan emakumeak baztertzen ez dituen formula erabili da; beste kontu bat da a bildua egokia edo irakurterraza ote den. Honelako dokumentu batean askoz hobeto izango litzateke honako hau esatea: — *Transporte gratuito para el alumnado de la comarca*.

### 2.1.1. ONDORIOAK

1) Interesgarria da nabarmentzea hiru blokeetan, zati asko daudela erredakzio arazorik gabekoak, dela emakumeak ikusgai jarri direlako, dela ez dutelako berariaz inor aipatu. Horrela Sarreran esan dena baieztatu egin da, hain zuzen ere testu batzuek ez dutela inolako arazorik agiri.

2) Dokumentu hori ohikoa da, eta emakumezkoak ikusezin bihurtzen edo baztertzen dituzten joera androzentristak zuzentzerakoan dauden egoera desberdinak azaleratzen ditu. Argi eta garbi erakusten du bazterketa horiek saihesteko bidea egiten hasia dela; baina, oraindik ere arazoak azaltzen dira irtenbidea ematerakoan.

3) Horri dagokionez, are ohikoagoa da emakumezkoak eta gizonezkoak aurkezteko erabilzen den hurrenkera: gizonezkoak beti lehenengo eta gero emakumezkoak. Hori egitea hizkuntza-hierarkizazio bat ezartzea da, hau da, garrantzi hurrenkera jakin bat ezartzea. Lehenengo urratsa egin da: emakumeak ikusgai jarri dira, baina, oraindik ere, literalki, gizonezkoen atzetik ikusten dira.

4) Zati horretan emakumeak ere kontuan izateko ohiko formula generikoak eta formula bi-koitzak dira.

## 2.2. B ATALA

Aztertutako hurrengo dokumentua aurreko ataleko institutuaren 2006ko aldizkariaren ale bat da. Blokeetan aurkezten da. **Lehenengoan**, honako hau irakur daiteke:

La nueva *Dirección* ha cumplido un año de mandato de los tres con los que comenzamos el reto de asumir la Dirección del centro. Nuestro objetivo es consolidar el camino andado por las anteriores Direcciones. En las siguientes páginas os mostramos los distintos proyectos en los que *estamos embarcados*. Nuestra intención no va más allá de ofrecer a toda la *Comunidad Escolar* una oferta pública de calidad, en coordinación con los distintos centros y municipios, consolidando la oferta actual. Es un gran reto, pero lo asumimos con toda nuestra ilusión.

*Dirección*. Lehenengo bloke honetan forma generiko hau nabarmentzen da, eta, beraz, ez da diskriminatzailea kolektiboari buruz hitz egiterakoan.

*Comunidad Escolar*. Gauza bera gertatzen da beste adierazpen honekin.

*en los que estamos embarcados*. Partizipioa maskulinoan dagoenez (*embarcados*), horren azpian dagoen subjektua nosotros da, beraz, maskulinoa. Saihestu egin daiteke aldaketa txiki batekin, honakoa: *en los que nos hemos embarcado*.

Ikus dezagun **bigarren blokea**.

El Instituto dispone de uno de los pocos comedores escolares en los que se realiza la comida en el propio Centro, utilizando productos totalmente naturales y de la máxima calidad. Diariamente se proporciona comida a *280 comensales* en dos tandas. Así mismo se ofrecen distintos menús para *celíacos, alérgicos, musulmanes y alumnado* en general. Para poder llevar a cabo todo este trabajo en buenas condiciones, hace dos años se renovó la cocina totalmente aprovisionándola con las últimas tecnologías de la cocina: hornos rápidos, sartenes basculantes, frigaplatos, mesas calefactoras, etc. *Un grupo humano formado por tres cocineras y ocho ayudantes* satisface la necesidad gastronómica de la Comunidad Escolar.

*280 comensales*. Izen ezin hobea da Institutuan jaten geratzen den jende guztia adierazteko, ez sexu, ez beste ezelako bazterketarik egin gabe.

*Un grupo humano formado por tres cocineras y ocho ayudantes*. Beste forma generiko azkar eta praktiko bat.

*alumnado*. Aurretik ere ikusi da izen generiko hau. Logikoki, sarritan agertzen da hemen zein beste dokumentu batzuetan, hezkuntzan eta eskola-erakundean gertatzen ari denaz hitz egiten ari garelako.

*celíacos, alérgicos, musulmanes*. Kasu honetan, berriz, maskulinoa baino ez da erabili hiru kolektibo horiek aipatzeko. Beste aukera bat honako hau izango litzateke: *gente celíaca, alérgica, musulmana*, edo *personas celíacas, alérgicas, musulmanas*, edo *alumnado celíaco, alérgico, musulmán*.

**Hirugarren blokeari** ekiten badiogu, ikusiko dugunez, ez du arazo handirik agertzen.

Hace dos cursos que se implantó en el Instituto el Sistema de Calidad, un programa piloto impulsado por el Gobierno Vasco. Se pretende fomentar la calidad en todos los procesos educativos que se llevan a cabo durante el año; algunos, puramente administrativos o burocráticos; otros, relacionados con las programaciones, memorias y tutorías; y unos últimos referentes a la relación *alumnado-Centro, profesorado-Centro y padres-madres-Centro*. La auditoría del curso pasado fue satisfactoria y se ha logrado el certificado de calidad que otorga el Gobierno Vasco. Todas estas mejoras de los procesos educativos garantizan una continuidad de la labor docente, aun en los casos de sustitución de *cargos directivos o profesorado*.

*alumnado-Centro, profesorado-Centro y padres-madres-Centro*. Zati honetan, adierazpen luze hori erabiltzen da, batetik, bi generiko, eta, bestetik, forma bikoitz bat. Amak eta aitak aipatzeko era, betikoa da.

*cargos directivos o profesorado*. Beste hau ere erabiltzen da, aurreko terminoetako bat errepikatzen duena. Biak daude ondo.

**Laugarren blokean** honako hau azaltzen da:

La Agenda 21 es un proyecto impulsado desde Europa y promovido por el Gobierno Vasco a través de los Ayuntamientos para fomentar un análisis, una concienciación y unas propuestas de mejora del medio ambiente que nos permita vivir en un desarrollo sostenido para con la naturaleza.

En el centro llevamos dos años impulsando la Agenda Escolar 21 a través de una Comisión de Medio Ambiente formada por *cuatro profesores y un alumno/a* de cada clase. Se realiza un Plan Anual para acometer los objetivos, durante el curso 2005-2006 se trabajó el tema de los residuos sólidos. El balance de la partici-

pación del *alumnado* es muy bueno. En el futuro se trabajarán temas como el consumo responsable, gasto de energía, movilidad, etc.

*alumnado*. Jada ikusi dugun forma generikoa.

*cuatro profesores y un alumno/a de cada clase*. Testua idazteko eragatik, ziurrenik lau gizonetako dira, beraz ez dago eragozpenik. *un alumno/a de cada clase* adierazpenak lehen ere ikusi dugun arazo bera dakar, hain zuzen ere artikulua soilik maskulinoan dagoela; beraz, bi eratarata idatzi beharko litzateke. Aukera bat honako hau esatea izango litzateke: *un/a alumno/a de cada clase*; baina, beharbada, hobe izango litzateke beste hau esatea: *una o un alumno por clase*, edo *un o una alumna por clase*.

**Bosgarren blokea** (baita zazpigarren eta azkena ere) da, beharbada, arazo gehien dakarrena.

*120 alumnos/as, de los cuales la mayoría son chicas*, practicarán el Deporte Escolar en más de diez modalidades distintas. Se pretende que *los jóvenes* no dejen de practicar deporte hasta llegar a la universidad. *Distintos monitores y entrenadores* coordinan los entrenamientos del *alumnado* en sus respectivos pueblos para que estén *preparados* para la competición que comenzará el 21 de octubre y finalizará en mayo. Se pretende fomentar la salud física, el compañerismo, la deportividad y el ocio recreativo. Este año se ha logrado un acuerdo con el BKL, pero no ha sido posible lograr el mismo acuerdo con la Sociedad Deportiva. Se insta a *los padres y madres* que animen a *sus hijos/as*, para que participen en algún deporte, pues hacer deporte significa salud.

*los padres y madres que animen a sus hijos/as*. Batetik bi forma bikoitz generiko horiek daude. Sexuen hurrenkera agertzeaz gain, beste bi alternatiba hauek eskain daitezke, aurrekoa pixka bat aldatzen dutenak: *los padres y las madres que animen a sus hijas e hijos / las madres y los padres que animen a sus hijas e hijos*. Bestalde, blokeak arazo batzuk dakartza.

*120 alumnos/as, de los cuales la mayoría son chicas*. Kasu hori zail konpontzen da, bidezkoak ez diren maskulinoak kendu nahi badira. Honako hau izan daiteke aukera bat: *120 alumnas y alumnos, entre quienes hay una mayoría de chicas*

*los jóvenes*. Maskulino hori saihestearren hitz kolektibo bat erabil daiteke: Se pretende que la juventud no deje de practicar. Edo bestela, izena kendu, argi dago-eta nori buruz ari den: *Se pretende que no Ø (7) dejen de practicar*.

---

(7) Erreferentzia pertsonalen bat kentzen denean, azpimarratzeko, Ø sinboloa jartzen da horren ordez.



*Distintos monitores y entrenadores.* Maskulino bikoitz horren aurrean, bi forma bikoitz aukera daitezke: *Distintas monitoras y monitores, así como entrenadores y entrenadoras.* Horrela entrenatzaileak eta begiraleak bi sexuetakoak izan daitezkeela adierazten da.

los entrenamientos *del alumnado* en sus respectivos pueblos para que estén *preparados.* *alumnado* adierazpena ezin hobea da, baina komunztadura arazo bat dakar: *alumnado* esaten bada *preparado* esan behar da (maskulino singularra, *alumnado* bezala) eta ez *preparados.* *alumnado* hitza maskulinoa izateak ez dakar inolako arazorik, izan ere hitz generikoen genero gramatikalak berdin diolako: *alumnado* bezalako hitz maskulino batek emakumezkoen zein gizonezkoen presentzia jasotzen du, *secretaría* hitza gizonezkoak zein emakumezkoak hartzen dituen bezala.

### Seigarren blokea.

El programa de Normalización del euskara tiene como objetivo fundamental la presencia del euskara en todos los ámbitos. Esto implica la participación de *todos/as*. El programa ULIBARRI del Servicio de Euskara del Gobierno Vasco es el que se lleva a cargo para tal fin. Como en años anteriores *los inmigrantes* que llegan a nuestro centro comienzan aprendiendo el euskara para una mejor integración.

*todos/as.* Nahiz eta hitz horretan emakumezkoak eta gizonezkoak sartu, kasu horretan beste formula batzuk har daitezke: *Esto implica la participación de todos ellos* (aurreko esaldiko los ámbitos ulertzen da), edo *de toda la Comunidad Escolar*, edo *de todo el Centro*, edo *de todo el Instituto*, edo *de todo el mundo...*

*los inmigrantes.* Soilik gizonezkoentzako (edo mutilentzako) den maskulino hori saihestu egin ahal izan da honako hau esanda: *las chicas y los chicos inmigrantes*, edo *el alumnado inmigrante.*

Esan denez, **azken blokeak** ere arazo batzuk dakartza.

Hemos estado el mes de julio en un pueblo de Francia llamado Loches, junto con *otros 30 vascos.* Además estaban con *nosotros australianos, serbios y neozelandeses.* Por las mañanas teníamos 4 horas de clase y por la tarde actividades y salidas.

Hemos estado en casa de unas familias y nos han tratado muy bien. Hemos tenido algún problemilla con la comida, pero la experiencia ha merecido la pena y queremos animar a *todos/as* a no perder una oportunidad como ésta. Nuestro francés no era muy bueno, pero hemos aprendido mucho.

*todos/as*. Barradun forma hori dugu formula generiko gisa. Beste adierazpen hauek ere baliagarriak izango lirateke: *todo el mundo, toda la gente, todo el alumnado*. Hiru forma horiek ere egokiak dira emakumeak ikusgai jartzeko; bata edo bestea aukeratzea testua zuzentzen duen pertsonaren eskuetan dago, berarentzat erosoena dena aukeratuko du.

*otros 30 vascos*. Maskulino horren ordez beste hauek erabil daitezke arazorik gabe: *otras 30 vascas y vascos / otros 30 vascos y vascas*.

*nosotros Australianos, serbios y neozelandeses*. Zati horrek arazo batzuk dakartza, batetik *nosotros* maskulinoa, eta, bestetik, atzetik doazen beste maskulino guztiak. Hori erraz konpon daiteke, idatzitakoa pixka bat aldatuta: *Además estaba con nuestro grupo gente australiana, serbia y neozelandesa*. Edo are ekonomikoagoak diren beste alternatiba batzuk: *Además había gente australiana, serbia y neozelandesa, edo bestela, Además había grupos de Australia, de Serbia y de Neozelanda*.

## 2.2.1. ONDORIOAK

1) Aurreko dokumentuan bezala, zati ugari ez dute erredakzio arazorik.

2) Dokumentu honetan ere egiaztatu denez, orokorrean Hezkuntzari dagokionez, hasi dira zuzentzen emakumeak ikusezin bihurtzen edo baztertzen dituzten joera androzentristak, beste kontu bat da bestelako egoera bat agertzen dela zuzenketa horri dagokionez.

3) Kasu askotan formula generikoak erabiltzen ditu (*Dirección, Comunidad Escolar, profesorado, alumnado...*).

4) Emakumezkoen eta gizonezkoen aurkezpen hurrenkera beti bera da; beti aurkezte dira lehenengo gizonezkoak.

5) Nahiz eta aurreko dokumentuan aztertutako zentro bereko testua izan, kasu honetan ez da a bildua erabili.

## 2.3. CATALA

Hurrengo lerroetan euskal eskola publiko baten oinarri diren printzipioak eta lehen hezkuntzako bigarren zikloko arloak azaltzen dituen dokumentu luze baten hiru zati ikusiko ditugu.

Kasu asko errepikatu egiten direnez, taula bakoitzaren ostean egiten diren oharretan sistematizatu egin dira.

### Lehenengo zatia:

Intimamente unidos a la concepción *del alumno y la alumna* están los Principios Metodológicos que guían nuestro quehacer diario:

Individualización: la escuela tiene que posibilitar un programa que permita a *cada alumno y cada alumna* trabajar a su propio nivel y ritmo, desde sus capacidades y desde la situación en que se encuentra.

Socialización: la interacción con *los demás* nos hace avanzar, modificar nuestros esquemas, por ello las actividades planteadas son contextos sociales.

Actividad: «todo lo que *el alumno y la alumna pueda hacer por sí mismo* no lo haga el *profesorado*». Se pretende que tengan la mente activa, despierta, con iniciativa y curiosidad.

Creatividad: es una capacidad de *todo ser humano* y la fomentamos en todos los campos, para que *cada alumno y cada alumna* saque lo que lleva dentro y sea consciente de su peculiaridad.

Libertad: es el derecho que *cada persona* tiene a elegir, pensar y manifestarse como es, sin invadir el derecho de *los demás*, y este derecho lo marca lo que *nosotros* llamamos límite social.

Alde batetik, lau aldiz errepikatzen da *alumno y alumna* forma bikoitza, bi aldiz dagozkien artikuluekin eta beste bi aldiz *cada* hitzarekin. Irtenbide beraren aldaerak dira. Emakumezkoen eta gizonezkoen hurrenkera berbera da beti.

Bestalde, *profesorado, todo ser humano* eta *cada persona* generikoak daude. Lehenago ere ikusi denez, hitz generikoen genero gramatikalak berdin dio. Kasu honetan, bi hitz maskulino eta femenino bat ditugu, baina hirurak aintzat hartzen dute emakumezkoen zein gizonezkoen presentzia.

Konpondu gabeko arazoei dagokienez, ikusi da birritan erabili dela los demás maskulinoa; horren orde besterik ez daude erabil daitezke: *el resto de la gente, el resto de las personas, la otra gente, las otras personas*, edo baita *las y los demás* ere.

*nosotros* maskulinoa erabili da ere, dokumentua idatzi duen eskola-komunitateari, eskolari, buruz hitz egiterakoan. Beraz horren orde aipatutako horiek jar daitezke: *escuela* edo *comunidad escolar*. Hori albo batera utzita, testuingurua kontuan hartzen bada, ikusiko da *nosotros* hitza ken daitekeela, testua ulertu ulertzen delako eta ondo geratzen delako, subjektua esplizitu dagoelako *llamamos* aditzean.

Ikus dezagun **bigarren zatia**.

#### Charlas

Se trabaja con textos expositivos referidos al área de Conocimiento del Medio.

El objetivo clave de esta actividad consiste en que *el alumnado*, reelaborando textos de este tipo, aprenda a relacionar ideas y a distinguir lo fundamental de lo accesorio. En el desarrollo de la actividad distinguimos dos niveles que están en función de su grado de madurez. En un primer nivel expresan con sus palabras las diferentes ideas que aparecen en el texto elegido. En un segundo nivel se trabaja en grupos *de dos o tres*. Eligen un texto *a repartir en el grupo*, relacionan las ideas comunes, distinguen las esenciales de las accesorias y se inician en el trabajo de síntesis, elaborando un único documento.

Elaboran un guión que les ayuda a memorizar la charla y posteriormente, la exponen ante sus *compañeros* y reciben su valoración. [...]

#### Dramatización

El trabajo de este contexto se realiza en grupo y consiste en transformar un cuento en una obra de teatro; es decir, dan estructura teatral a un texto narrativo. Para ello resumen la parte *del narrador* y amplían el diálogo de los personajes manteniendo la coherencia temática y teniendo en cuenta que los textos teatrales tienen una estructura propia: cada vez que interviene un personaje utilizar el guión, signos de interrogación y exclamación... El texto teatral obtenido lo ensayan hasta darle expresividad, eligiendo los registros de voz adecuados y posteriormente lo emiten recibiendo después la valoración de sus *compañeros y compañeras*.

Kasu honetan hainbat forma generiko agertzen da, ohikoa den *alumnado*, baina beste ezohikoago batzuk, esate baterako *grupos de dos o tres* (neska-mutilak ulertzen da) eta beste antzeko bat, *repartir en el grupo*.

Zatiaren amaieran bitara jarritako formula bat dago: *compañeros y compañeras*.

Azken forma horrek ez dauka zerikusirik lehenengo paragrafoaren amaieran ikus daitekeen *compañeros* maskulinoarekin, eta horrek erakusten duenez zuzenketen ezaugarrietako bat (ziurrenik edozein eremutan) gorabeheratsuak direla da.

Beste maskulino bat dago, *narrador* hitza; ez dago benetako pertsona bati aplikatuta, baizik eta literatur baliabide bati. Oso baliagarria izango litzateke horren ordez beste hau erabiltzea: *voz narradora*; izan ere, oso polita eta zehatzagoa izateaz gain, pertsonak literatur baliabideetatik bereizten ditu eta oso baliagarria izango zaie literatura sakon ikasten hasten direnean edo irakurtzen hasten direnean.

Azkenik, ikus dezagun zer dakarkigun **hirugarren eta azken zatiak**.

#### Inglés

Teniendo en cuenta las características de la edad, ésta es la estructura de las sesiones de inglés.

— Saludo: *El/la* responsable de la clase saluda al grupo y escribe el plan del día en la pizarra.

— Noticias del día: Dan a conocer información sobre *sí mismos* y sobre *los* miembros de cada grupo. [...]

— Despedida: *El o la* responsable despide al grupo y utilizando rimas se decide el orden de salida de los grupos.

En las sesiones de inglés aparte de trabajar cuentos relacionados con contenidos de otras áreas, se trabajan el Arte, la Música y los Contextos (txokoak).

En las sesiones de arte se trabaja el orden cronológico de *los* artistas de una época, la biografía, características de diferentes épocas, se realiza un proyecto sobre *un* artista, identificación de cuadros, relacionar cuadros y *artistas*, recoger información a través de libros y vídeos, hacer fichas, pintar y copiar un cuadro, utilizar el ordenador con programas de arte.

En las sesiones de música se hacen audiciones sobre temas musicales, se da información sobre *el autor*, se habla sobre los instrumentos, se escuchan piezas musicales en el vídeo, se trabaja el timbre y se hace un librito.

Programazio zehatz honetan emakumeen esperientzia aintzat hartzen ez duten maskulino gehiago erabili da, eskola beraren aurreko beste bi programazioekin alderatuz. Edozein modu-

tan ere, forma bikoitz bera azaltzen da, bi eratarata egituratuta. *El/la responsable* eta *El o la responsable*.

Kasu batean *artistas* hitza agertzen da bakarrik; berarekin ez doanez determinatzaile edo izenondorik, generikoa da.

Arazoa hitz horrekin batera determinatzaileak doazenean agertzen da; horrela, *los* artistas zein *un* artista adierazpenek maskulinitatea azaleratzen dute. Honako hau izango litzateke aukera bat: *las y los* artistas eta *un o una* artista.

Gainera, beste adierazpen hauek daude: *los miembros*—gutxienez, beste artikulua bat gehitu behar litzateke: *las y los miembros*— eta *el autor*—hori ere aldatu egin beharko litzateke: *la o el autor*, edo *el o la autora*—.

Azkenik, adierazpen hau dago: *sobre sí mismos*; horren ordez beste formula bat erabili beharko da, esate baterako, *sobre sí mismas y mismos*.

### 2.3.1. ONDORIOAK

1) Aurreko dokumentu zatietan bezala, atal ugari dago erredakzio arazorik gabe.

2) Aurrekoetan bezala, dokumentu honetan ere egiaztatu da hasi direla zuzentzen emakumeak ikusezin bihurtzen edo baztertzen dituzten joera androzentristak, beste kontu bat da egoera desberdin bat agertzen dela zuzenketa horiei dagokienez.

a. Kasu honetan, gainera, ikus daitekeenez, dokumentu bera hainbat egileren artean eginda dagoenean, batzuk beste batzuk baino sentsibilizatuago daude edo trebeagoak dira, emakumezkoak eta gizonezkoak kontuan hartzerakoan.

3) Testu zatietan, joera sexistak desagerrarazteko, forma bikoitzak zein adierazpen generikoak erabiltzen dira.

4) Ez da a bildurik erabili testuetan.

## 2.4. DATALA

Dokumentu batzuek kontuan dute emakumeak ikusgai jartzeko eta ez baztertzeko beharri-zana, eta, beraz, horietan emakumeak ez dira ia behin ere ahazten. Esate baterako, beste ikas-tetxe batzuei laguntzeko zentro baten idazkia (zati batzuk ekarri dira hona). Lehenengo eta behin, Batxilergoan gaztelania eta literatura ikasteari buruzko Sarreraren zati bat ikusiko da, eta gero hori ebaluatzeko puntu batzuk.

Beti bezala, positiboa dena zein gaizki ebatzitakoa, kurtsiban markatu dira testuan, eta, gero, beherago komentatu da.

Además, el estudio del discurso literario contribuye al logro de otros objetivos formativos del Bachillerato. El aprendizaje literario favorece el autoconocimiento, la comprensión del *comportamiento humano* y el enriquecimiento cultural. La selección de textos debe incluir muestras de *los autores y las autoras* y momentos más representativos de la literatura en castellano, atendiendo especialmente a *las autoras y autores vascos*; intentando siempre que mantengan fuerza comunicativa en el contexto del *alumnado*. *Es importante incorporar al estudio de la tradición literaria, las aportaciones realizadas por las mujeres histórica y actualmente*, reflexionando sobre las dificultades que éstas han tenido y tienen para participar en el ámbito público.

